

Txerriak post mortem ikuskatzeko neurri berriak 14/03/20

Gaur egun, txerriak *post mortem* ikuskatzeari dagokionez, 854/2004 Araudiak, animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialei buruzkoak, ezartzen dituen neurriak daude indarrean. Nolanahi ere, **2014ko ekainaren 1etik aurrera** indarrean sartuko da [219/2014 Araudia](#), martxoaren 7an argitaratu zena. Araudi horrek aldarazi egiten du 854/2004 Araudiko I. eranskina, etxeko **suidoak post mortem ikuskatzeko berariazko betekizunei dagokienez**.

Araudi horrek dakarren berrikuntza da esku-teknikak susmagarriak diren txerriak *post mortem* ikuskatzean baino ez direla erabiliko, eta **begi-ikuskapenaren prozedura** hauek ezartzen ditu:

- Buruarena eta eztarriarena, ahoarena, ahutzena eta mingainarena.
- Birikena, trakearena eta hestegorriarena.
- Perikardioarena eta bihotzarena.
- Diafragmarena.
- Gibelarena eta linfa-gongoil hepatiko zein pankreatikoena.
- Traktu gastrointestinalarena, mesenterioarena eta linfa-gongoil gastriko zein mesenterikoena
- Barearena.
- Giltzurrunena.
- Pleurarena eta peritoneoarena.
- Sexu-organoena (zakilarena izan ezik, baldi eta dagoeneko baztertu bada).
- Errapena eta linfa-gongoilena.
- Animalia gazteen zilbor-gunearena eta artikulazioena.

Neurrien aldaketa hori 2011n [EFSAk haragia ikuskatzean aintzat hartu beharreko osasun publikoarentzako arriskuen inguruan eman zuen irizpenaren ondorio da](#). Irizpen horren **ondorioa** da gaur egun **post mortem ikuskapenean eskatzen diren haztapenek eta ebakiek arrisku bakteriologikoarekin gurutzatutako kutsadura-arriskua eragiten dezaketela**, eta kutsadura gurutzatua gertatzeko arrisku hori handiagoa dela teknika horrekin bilatzen diren gaitzen arriskua baino. Ondorioz, ezarri zuen esku-teknika horiek susmagarriak diren txerriekin baino ez direla erabili behar.

Araudi berriaren arabera, honako hauen arabera hartuko da txerri bat **susmagarritzat**:

1. Animalien jatorrizko ustiategiari buruzko **datu epidemiologikoak** edo beste datu batzuk.
2. **Elikakateari buruzko informazioa**.
3. **Ante mortem ikuskapenaren ondorioek edo post mortem** atzemandako **irregulartasun bereizgarriek adierazten badute** arriskua egon daitekeela osasun publikoarentzat, animalien osasunarentzat edo animalien ongizatearentzat.

Azkenik, lege-testuak dio **albaitari ofizialak aukera eduki behar duela erabakitze** zein haztapen edo ebaki egin behar diren *post mortem* ikuskapenean, haragia giza kontsumorako egokia dela zehazteko.

[Araudi berria](#)

2013 urteko txostena: RASFF - RASVE alerta sareak 14/03/19

ELIKAK, 2013ko RASFF (animalia elikadura eta elikagaiak) eta RASVE (animalien osasuna) bitartez jasotako alerta eta jakinarazpenen laburpen txostena berri eman du.

Pasa den urtean, animalen elikaduraren arloan 272 jakinarazpen egin ziren, elikagaien artean 2.653 jakinarazpen eman ziren eta animalien gaixotasun fokoak 10.115 izan ziren.

[Txostenak](#)

Debekatu egin dute txerriak zikiratzea 14/03/03

Duela egun batzuk jakin zen **Frantziak debekatu egin duela abeltzainek txerriak zikiratzea**, zehazki, **7 egun baino gehiagoko esne-txerrikumeak**, [2014ko urtarrilaren 30eko Dekretuaren](#) bidez.

Orain arte, Frantzian baimenduta zegoen abeltzainek edozein adinetako animaliak zikiratzea, baina Frantziako Gobernuak legez kanpokotzat jo du; izan ere txerriak babesteari buruzko [Europako 2008/120 Zuzentarauak](#) honako hau ezartzen du:

1. **Albaitari batek edo prestakuntza duen pertsona batek** baino ezin du txikiratzea gauzatu.
2. Zikiratzea jaio ondorengo **zazpigarren gunetik aurrera** egiten bada, albaitari batek aplikatutako **anestesiaren eta analgesiaren** bidez egingo da.

Frantziak, Europako herrialde gehieneko ildoari jarraitu dio. Gero eta urrats gehiago ematen dira, jardunbide horiek nahiz animalietan izaten dituzten eraginak, ahal den neurrian, murrizteko.

2010. urtean "Txerriak zikiratzearen alternatibari buruzko Europako Adierazpena" sinatu zuten ekoizleen ordezkariak, hiltegiak eta haragi-industriak, albaitariak, GKE-ek, eta Europako elikakateko beste eragile batzuek. Borondatezko adierazpena da, eta bertan, lehenengo aldiz, Europako txerri-abeltzainek jarrera proaktiboa erakutsi dute, gizartearen eskaerari sektoretik bertatik irtenbidea bilatzeko. Adierazpen horren xede nagusia da 2018an zikiratzea debekatzea.

- [Txerriak kirurgikoki zikiratzearen alternatibei buruzko Europako Adierazpena](#)
- [Adierazpenaren sinatzaileak](#)
- [Informazio orria](#) - EE

Espanian, honako errege dekretu hauek arautzen dute esne-txerrikumeen zikiratzea: [1135/2002 EDa](#), txerriak babesteko gutxieneko arauari buruzkoa, eta [1221/2009 EDa](#), txerri-azienda

estentsiboaren ustiategiak ordenatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituen. Dekretuok honako hau xedatzen dute:

1. **Txerri arrak zikiratu daitezke**, baina **ehunak urratu gabe**.
2. **Zazpi egun baino gutxiago**ko esne-txerrikumeei dagokienez, **albaitari batek** edo **animalien ongizatearen arloko prestakuntza** eta teknika horietan **esperientzia** duen pertsonak batek baino ez ditu zikiratuko, betiere bitarteko egokien bidez eta higiene-baldintza egokietan.
3. **Zazpi egun baino gehiago**ko esne-txerrikumeei dagokienez, **albaitari batek** baino ezin izango ditu zikiratu, eta eragin luzeko anestesia eta analgesia erabili beharko dira.
4. **Txerri emeen zikiratzea ekoizpen estentsiboko sistema duten txerri-ustiategietan baino ezingo da gauzatu, behar bezala justifikatutako arrazoi profilaktiko eta terapeutikoak direla eta**. Txerri emeak zikiratu behar badira, albaitari batek ziurtatu eta egin beharko du, eta eragin luzeko anestesia eta analgesia erabili beharko dira.

Jardunaldia: larrialdiz hiltzeko prozedura hegazti-hazkuntzan 14/02/28

Abeltzaintza-ustiategietan hegaztiak premiaz hiltzeari buruzko prestakuntza-jardunaldia egingo da **Gasteizen**, 2014ko **martxoaren 17an**. Bertan, besteak beste, gai hauek jorratuko dira: protokoloak prestatzea, behar diren langileak, norberaren erantzukizuna edo hegaztiak hiltzeko aintzat hartu behar diren ongizatearen alderdiak.

Jardunaldia bereziki interesgarria da orain, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera [1099/2009 zenbakiko Araudia \(EE\)](#), animaliak hiltzean babesteari buruzkoa, aplikatu behar delako. Izan ere, Araudiak ezartzen du osasuna dela eta, hustea egin behar izanez gero, **agintari eskudunek jardun behar dutela tartean diren animalien ongizatea gordetzeko, gerora jarduketan berri eman behar diotela Europako Batzordeari eta jendaurrean jarri behar dutela**.

Arau horri jarraikiz, osasun-hustea animaliak hiltzeko prozesua da, osasun publikoko, animalia-osasuneko, animalia-ongizateko edo ingurumeneko arrazoiak direla eta. Prozesu hori agintari eskudunak ikuskatuta egiten da.

Hortaz, **agintari eskudunak gaiaren inguruko ezagutza eskuratu behar du, azkar jardun ahal izateko eta tartean diren animaliak babesteko, animalia-osasuneko arrazoiengatik osasun-hustea egin behar bada**.

Jardunaldia HAZIk, Neikerrek eta Eusko Jaurlaritzak antolatu dute, eta Arkauteko Nekazaritza Etxaldeko zalditegian egingo da goizeko 09:00etatik 14:00etara bitartean. Suediako Skara Unibertsitateko Lotta Berg doktorea arituko da bertan, ibilbide oparoa du eta. Ikastaroa ingelesez emango da, baina Ikerbasqueko ikerketa-irakasle eta hegazti-hazkuntzan aditu Inma Estévez doktoreak gaztelaniara itzuliko du aldi berean.

Jardunaldiko [egitaraua](#)
[Izena ematea](#) doakoa da

Albaitaritza-tratamenduaren alternatibak, baimendutako sendagairik ez dagoenean 14/02/19

Batzuetan, albaitariek ikusten dute **ez dagoela printzipio aktiborik** gaitz bat sendatzeko. Orobat, batzuetan ikusten dute sendagaia existitu arren, euren **herrialdean ez dagoela baimenduta** edo **beste espezie baterako** preskribatuta dagoela.

Egoera horren aurrean, indarrean dagoen legeriak ahalbidetu egiten du animalia bati edo animalia-talde txiki bati beste sendagai bat ematea, preskripzio-printzipio alternatiboak erabiliz, animalien sufrimendu onartezina saihesteko.

Printzipio horiek "**Preskripzioaren turrusta**"-ri dagozkio:

1. EKn (estatu kidea) **beste animalia-espezie batentzat** edo beste gaitz bat duen espezie berbererako sendagai baimendu bat ematea.
2. Arestiko kasua existitzen ez bada, EKn **gizakientzat baimendutako sendagai** bat ematea.
3. Arestiko kasua existitzen ez bada, **beste EK batean gaitz horretarako baimendutako sendagai** bat ematea.
4. Aurreko aukeretako bakar bat ere ezinezkoa bada, baimendu egiten da **formula magistral bat, auto-txertoa, prestakin ofiziala...** egitea eta erabiltzea, betiere kasu horretarako espezifikoa bada eta indarrean dagoen legeriaren xedapenak errespetatzen badira.

Etiketako azalpenez kanpoko preskripzio-kasu guztietan, **albaitariak** berak eman beharko ditu sendagaiak; bestela, bere **erantzukizun zuzenaren pean** egin beharko da.

Europako Albaitarien Federazioak (FVE) informazio-liburuxka bat argitaratu du, non modu grafikoan azaltzen baitira kasu horietan jarraitu beharreko argibideak, hala loditzeko eta laguntza-animaliekin, nola ekidoekin:

- [FVEren liburuxka](#)

Zerikusia duen legeria

- [2001/82/EE Zuzentarauaren](#) 10. artikulua ([2004/28/EE zuzentaraua](#) aldatu zuen).
- [109/1995 Errege Dekretuko](#) aparteko preskripzioen 81. artikulua
- [122/2013 Araudia](#)

Argitaratu egin dute animaliak hiltzean

horien ongizateari buruzko Errege Dekretua 14/02/07

Otsailaren 1ean argitaratu zuten BOEn [37/2014 Errege Dekretua](#), **urtarrilaren 24koa**, **animaliak hiltzen horien babesaren** inguruko zenbait alderdi arautzen dituena. Dekretua otsailaren 2an jarri zen indarrean, eta joan den astean eman genuen horren [berri](#).

Arau berriak animaliak zaintzeko azaroaren 7ko [32/2007 Legea](#) garatzen du, eta xedapen zehatzak ezartzen ditu Espainian [1099/2009 Araudia](#) (EE) aplikatzeko. Beste alde batetik, **baliogabetu egiten du** [54/1995 Errege Dekretua](#), urtarrilaren 20koa, animaliak hiltzean horien babesari buruzkoa.

Ongizatea animaliak hiltzean: betekizun berriak 14/01/30

MAGRAMAk Errege Dekretu bat onetsi du, animaliak hiltzean horien ongizatea arautzeko. Aurki argitaratuko du dekretua.

Arauk, besteak beste, honako alderdi hauek **arautuko ditu**:

1. Hiltegietan animaliak hiltzeaz ardurazten diren **langileen prestakuntza**.
2. **Ikastaroak antolatzeko prozedura**, eta gaitasun-agiriak ematea.
3. Animaliak hiltzeko **ekipamendu eta gailuak Espainian merkaturatzeko arauak**.
4. Agintaritza eskudunak etxeko **kontsumo pribaturako egiten den hilketaren kontrol** ofizialak egiteko **bideak**.
5. **Arau-hausteen eta zehapenen** inguruan aplikatu daitezkeen araubidea.

Errege Dekretuak gehitu egiten dio nazio mailako araudiari hiltzeko unean animaliak babesteri buruzko Europako Araudia, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrea indarrean dagoena ([1099/2009 Araudia](#)).

Xedapen gehigarrietan, testuak sartu egiten ditu 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen abian zeuden hiltegiak behin-behinean bete beharreko betekizunak.

[MAGRAMAren informazioa](#)

Carbapenoaren aurreko erresistentzia animalia-produktuetan 14/01/14

Cabapenoak espektro zabaleko **antibiotiko β -laktamikoak dira, gizakien infekzio larriak sendatzeko erabiltzen direnak**. Hainbat sendagaien aurreko erresistentzia duten bakterio Gram-negatibok eragindako infekzioetarako azken lerroko terapia dira.

Gaur egun arte, noizean behin eginiko azterlanek baino ez dute islatu carbapenemasak ekoizten dituzten bakterioak daudela elikagaiak ekoizteko animalietan. Alemanian, ***Escherichia coli*** eta ***Salmonella infantis*** isolatu dira **txerrietan** eta eskortako **hegaztietan**. Frantzian eta Belgikan, aldiz, ***Acinetobacter spp.*** isolatu da **behietan** eta **zaldietan**, eta Txinan ***Acinetobacter spp.*** **txerrietan** eta eskortako **hegaztietan**.

Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak (EFSA) zientzia-irizpen bat egiteko eskatu zion Arrisku Biologikoen Panelari (BIOHAZ), elikagaiak ekoizteko animalien artean carbapenoaren aurreko erresistentziari buruz.

Bada, irizpenean metodologia bat proposatzen da, carbapenemasak sortzen dituzten enterobakterioen eta *Acinetobacter spp.*-ren anduiak atzemateko, hautatze-bitartekoak barne. Dena den, animalia-jatorriko laginak eta elikagaiak aztertzeo hautatze-tresnak ebaluatu eta esperimentalki baliozkotu behar dira.

Txostenean, besteak beste, **ondorio** hauek jasotzen dira:

1. Carbapenemasen ekoizpenak zenbait erresistentzia-mota eman diezaieke β -laktamikoetarako, honako hauen arabera: **bakterio-espezia, entzimaren aldaera, adierazpen-maila** (zenbait sustatzaileraren arabera), carbapenemasak kodetzen dituzten geneen kopiak eta **erresistentzia ez entzimatikoko mekanismo gehigarriak**.
2. Mundu osoan gizakien infekzio-kasuetan bakterioak isolatu direnean betalaktamasak ekoizten dituzten andui-mota asko atzeman badira ere, gaur egun arte **noizean behin egindako azterlanetan besterik ez da adierazi halakoak aurkitu direla elikagaiak ekoizteko animalien artean**.
3. Carbapenoaren aurreko erresistentziaren agerrera errazten duten **faktoreen artean daude antimikrobiano horien kontsumoa handitzea Enterobakterioen kaltetan, gizakien artean**.

Hartu beharreko **neurrien artean**, EFSAk hauek ezarri ditu:

- Zaintza aktiboak zein pasiboak estali egin behar dituzte **agente zoonotiko** gakoak, **patogeno animaliak** eta **bestelako organismo adierazleak**.
- Lehenasuna eman behar zaie loditzeko **oilaskoei**, loditzeko **indioilarrei**, loditzeko **txerriei**, haragitarako zekorrei eta horien haragiari.
- Carbapenemasen ekoizpena kodetzen duten geneak nagusiki plasmidoek bitartekotzen dituztenez, **lehenasun handia du animalien ekoizpenean antimikrobiano horien erabilera murriztea, erabilera-argibide zuhurrekin bat etorritz**.
- Kontrol-neurrien eraginkortasuna inkesta zehatzen bidez gainbegiratu behar da, isolatze-metodo selektiboak erabiliz eta laginak aldeztu aurretik aberastuz.
- Kontrol-neurriak modu proaktiboan ezarri behar dira nazioan eta nazioartean, **saihesteko carbapenemasak ekoizten dituzten anduiak orokortzea abereen artean**.

- **Elikagaiak ekoizteko animalietan carbapenoak erabiltzea debekatzea aukera erraz eta eraginkorra izango litzateke.**

[EFSAren irizpena](#)

Hegaztiak burtzoratu eta hiltzeko adierazleak 14/01/10

EFSAko Animalien Osasuna eta Ongizatea arloko adituen panelak (AHAW ingeleseko siglak) hainbat zientzia-irizpen eman ditu hiltegietan zenbait espezie burtzoratu eta hiltzeko metodoen kontrol-prozedurei buruz.

Kortako hegaztiei dagokienez, AHAWk adierazleak proposatu ditu, animaliak hiltzeko sistema egokiak monitorizatzeko eta, horrela, ongizatea bermatzeko:

1. Uretan elektrizitatearen bidez burtzoratzea

Hegaztiak burtzoratu ostean, adierazleak egiaztatu beharko lirateke, kontzientzia zantzuak atzemateko hiltze-prozesuko bi etapa giltzarritan: hegaztiak ur-tangatik atera eta lepoa mozten zaien bitartean (1. etapa giltzarria) eta odolusten diren bitartean (2. etapa giltzarria).

Honako hauek dira **1. etapan** gomendatzen diren adierazleak:

- Konbultsio tonikoak
- Arnasketa
- Bat-bateko begi-kliska
- Horiez gain, kornearen edo betazalen erreflexua eta bokalizazioak

Honako hauek dira **2. etapan** gomendatzen diren adierazleak:

- Hegoei eragitea
- Arnasketa
- Horiez gain, kornearen edo betazalen erreflexua, bat-bateko irenstea eta burua astintzea

2. Gas-nahasketaren bidez burtzoratzea

Hil aurretik gas-nahasketaren bidez burtzoratu ostean, hainbat adierazle gomendatzen dira gas bidez burtzoratetik atera eta galdarraztatzeko tangan sartu bitartean, batik bat, hegaztiak gakoetan esekitzean (1. etapa giltzarria) eta odolusten diren bitartean (2. etapa giltzarria).

Honako hauek dira **1. etapan** gomendatzen diren adierazleak:

- Arnasketa
- Muskulu-tonua
- Hegoei eragitea
- Bat-bateko begi-kliska
- Horiez gain, kornearen edo betazalen erreflexua eta bokalizazioak

2. etapan, berriz, honako hauek dira adierazleak:

- Hegoei eragitea
- Muskulu-tonua
- Arnasketa
- Horiez gain, kornearen edo betazalen erreflexua

[EFSAren txostena](#)

Ardiak eta ahuntzak burtzoratu eta hiltzeko adierazleak 14/01/10

EFSako Animalien Osasuna eta Ongizatea arloko adituen panelak (AHAW ingeleseko siglak) hainbat zientzia-irizpen eman ditu hiltegietan zenbait espezie burtzoratu eta hiltzeko metodoen kontrol-prozedurei buruz.

Hausnarkari txikiei (ardiak eta ahuntzak) dagokienez, AHAWk adierazleak proposatu ditu, animaliak hiltzeko sistema egokiak monitorizatzeko eta, horrela, ongizatea bermatzeko:

1. Elektrizitate bidez burtzoratzea Honako hauek dira hiltze-prozesuaren hiru etapa giltzarriak: burtzoratu bezain pronto (1. etapa), lepoa mozten zaien bitartean (2. etapa) eta odolusten diren bitartean (3. etapa).

Honako hauek dira **1. etapako** adierazleak:

- Konbultsio toniko / klonikoak
- Arnasketa
- Korneako edo betazaletako erreflexua
- Horiez gain, bat-bateko begi-kliska, jarrera eta bokalizazioak

2. etapako adierazleak:

- Arnasketa
- Konbultsio toniko / klonikoak
- Muskulu-tonua
- Horiez gain, korneako edo betazaletako erreflexua, bat-bateko begi-kliska eta bokalizazioak

3. etapako adierazleak:

- Arnasketa
- Muskulu-tonua
- Horiez gain, korneako edo betazaletako erreflexua, bat-bateko begi-kliska eta bokalizazioak

2. Burtzoratu gabe: Kasu honetan, egiaztatu egin behar da animalien inkontzientzia-egoera loturretatik askatu aurretik, eta animaliak hilik daudela bermatu behar da prozesuarekin jarraitu aurretik. Kasu honetan adierazle hauek gomendatzen dira:

- Arnasketa
- Muskulu-tonua
- Horiez gain, jarrera eta korneako eta betazaletako erreflexua

[EFSaren txostena](#)